

2019ko udako proiektuak – Kronikak

Uda honetan 6 boluntario taldek 4-5 aste pasatu dituzte proiektu desberdinetan murgilduta, hainbat herrialdeetan: Libano, Boli Kosta, Kenia, Argentina eta Bolivian.

Itzulera, poztasuna orokorra izan da talde guztietan. Boluntarioek, beraien egonaldian hainbat kronika bidali dituzte eta hauek Proyde-Proegako facebook orrialdean irakurri daitezke: <https://www.facebook.com/proyde.proega/>

Ondorengo lerroetan irakur daitezke proiektu bakoitzaren nondik norakoak:

1. Libano, Fratelli proiektua (uztailak 1-28)

Guretzat hain ezaguna den proiektu honetan Hego Ameriketako eta Europako 8 boluntarioek hartu zuten parte. Proyde-Proegatik Donostiako Iñigo Pastoriza egon zen bertan. Bertan, Fratelli komunitatearekin elkarbanatu zuten bizitza eta lana eta komunitate honen parte dira Miquel (marista) eta Andrés eta Gilbert (salletarrak) Anaiak.

Boluntario taldeak Sahrani izeneko aterpe batean bizi diren haurrekin lan egiteko aukera izan zuen goizetan. Sahrani errefuxiatuentzako aterpe bat da eta bertan errefuxiatu palestinarrek eta apatrida bezala kontsideratuta dauden



libanoarrak bizi dira. “Gizartearentzat pertsona hauek existitzen ez direla pentsatzeak asko hunkitu ninduen, erregistratuak ez daudelako bakarrik”. Aterpean haurrekin jolastu eta ekintza desberdinak egiteko gune bat eskaini zieten boluntarioek, haurrak haur izan ahal izateko espazio bat, hain zuzen ere.



Arratsaldeetan aldiz, beste gauza batzuen artean, haurrekin futbolekin jolasteko aukera izaten zuten boluntarioek. “Futbolekin jolasteak haurren aurpegietan sortzen zuen irribarre egia ikusteak esfortzu guztiak merezi ditu”. Bestalde, basket eta futbol txapelketak antolatu zituzten.

Bourj Hamoud-en (Beirut-etik gertu) Fratelli komunitateak beste erakunde batzuekin aurrera eramaten duen proiektuaren baitan, beste haur batzuekin erlazionatzeko aukera izan zuten

boluntarioek. Esperientzia guztiz desberdina izan zen. Alde batetik, haurrak Irakekoak ziren eta batzuek ingelesez ala frantsesez hitz egiten zuten. Hori dela eta komunikazioa askoz ere errazagoa izan zen haiekin.

“Hilabete magiko bat izan da. Benetan, oso zoriontsua izan naiz Libanon. Bueltatu beharrak niregan sortu duen pena ezin dut ezkutatu, arraro sentitzen naiz etxera bueltatzean. Baina bueltatzean berdina ez naizela esan dezakedala uste dut. Niregan badago zerbait (oraindik ez dakit ez nola, ezta ere zenbat) aldatu egin dena. Bizitza preziatzen ikasita bueltatzen naiz, baloratzen, maitatzen eta ni maite nauten jendea maitatzen. Nire zati bat Libanon geratu dela jakinda bueltatzen naiz”.



2. Boli Kosta. Akwaba-Abijan proiektua (ekainak 30-uztailak 31)

Proiektu honetan hiru boluntarioek hartu zuten parte: Jesus Mari Arrieta Anaia eta Xabier Matarranz (Beasain), eta Periko Alkain (Donostia). Hirurek errepikatzen zuten boluntario esperientzia hau eta bertan, Anaien komunitate txikiko bizitzaren parte izan ziren. Komunitate horretan Quique eta Régis Anaiak bizi dira, baina proiektu honetako lehenengo astean bi Anai Ikuslarien bisitak ere izan zituzten: Paulin Degbe (Beningo Golkoa) eta Julen Diarra (Mendebaldeko Afrika). Bigarren astetik aurrera Quique Anaiarekin bakarrik jarraitu zuten, komunitatearen zuzendaria dena.

Boluntarioentzat proiektu honetan parte hartzen zuten lehenengo aldia ez zenez, haur eta gazte ia gehienak ezagutzen zituzten eta gertutasun hori oso garrantzitsua izan zen boluntarioentzat. Goizetan Akwaba-ko eskolan ematen zituzten klaseak eta arratsaldetan aldiz futbol txapelketa animatzen zuten, Periko izanik “nazioarteko arbitroa”.

Azkeneko astetan ere monitore bezala jardun zuten, hezitzaile talde batekin, mutilek amestu zuten kanpaldian. Bertan etxeko 50ek hartu zuten parte, auzoko beste 20rekin batera. Aurten, Djekanou-n antolatu zuten kanpaldia, herrialdeko hiriburu politikotik (Yamusukro) gertu, Abidjan-etik 200 bat km-tara hain zuzen ere, Santa Bernadette Ahizpek duten haur eskolatik gertu. Haurren gehiengoarentzat auzotik irteten ziren lehenengo aldia izan zen, autobus batean kanpamendu batetara. Kanpamenduan zeuden bitartean Yamusukro bisitatzeko aukera izan zuten, gehiengoak (hezitzaileak barne) ezagutzen ez zuen hiria. Bakearen Andre Maria

Basilikarekin harrituta geratu ziren, basoan jan zuten eta kaimanak ikusteko aukera ere izan zuten.

Astea amaitzean pozik bueltatu ziren Akwabara. Hurrengo egunean gehiengoa familiarren etxetara joan zen, baina 17 mutilek egoitzan geratu behar izan zuten, inor ez baitzegoen beraiek jasotzeko prest.

Bukatzeko, boluntarioak San Ignazio egunean, agurren ondoren aireportura joan ziren. “Zailena agur esatea da. Gure bihotzen zati bat bertan uzten genuen, baina jakin bagenekien haurrekin batera etorkizuna eraikitzen dugula, Akwaba-ko lemak dion bezala”.



3. Bolivia. Trinidad-Beni (uztailak 11 – abuztuak 16)



Trinidadeko proiektuan José Antonio Cemborain Anaiak (Sestao), M^a Jesús Sorianok (Zaragoza-Motemolín), Ainhoa Salaberriak eta June Lekuonak (Lezo) hartu zuten parte. Trinidaden Anai Eutiquio Ausínek (zuzendaria) eta Anaien Komunitateak, eta Linda Rodríguez irakasleak jaso zituzten.

Bertan, boluntarioek beraien laguntza eskaini zuten bost proiektu desberdinetan:

- **MOCOVÍ kartzela.**

Bertan ekintza hezigarri desberdinak eraman zituzten aurrera presoekin. Azkeneko egunean, hausnarketaren ondoren, presoek boluntarioekin batera antolatutako antzerki bat aurkeztu zuten, karaokean abesti desberdinak abestu zituzten eta boluntarioekin Lindak prestatutako arroz platerkada bat, ogia eta koka-kola bat partekatu zuten. Gainera, boluntarioek antolatutako ekintza desberdinetan erregulartasunez parte hartu zuten presoek “Kit Mocoví” bana eman zieten: txankletak, xaboi bat, hortzetako eskuila, hortzetako pasta eta boligrafo bat.

Zer esan dezakegu boluntarioen presentziaren inguruan kartzelan? Kontrako sentimenduak dira protagonistak. “Orokorrean eroso sentitu gara, beraien begiradetan ikusten dugu eskeroa, eta baita ere beraien hitzetan. Baina oso egoera gogorra da, gutxieneko baldintzak ez dituen leku batean”.



- **Erantzukizun penala duten nerabeen zentroa: MANÁ**

Boliviako Aberri Eguna zela eta, Maná zentroan antolatutako ekintza zibikoan parte hartu zuten boluntarioek hilaren 5ean. Zentroan bizi direnak 10 departamentuetan banatu ziren eta bakoitzeko dantza bat aurkeztu zuten. Ekintza honetan Ainhoa eta Juneke parte-hartze handia izan zuten.

7an agur esateko garaia iritsi zen eta horretarako jaialdi bat antolatu zuten. Bertan 4 dantza eta 3 antzerki antzeztu ziren eta bazkari txiki bat ere antolatu zuten. Gainera, “Kit Maná” bana ere eman zieten: hortzetako eskuila, hortzetako pasta, boligrafo bat, zorrozka bat, borragoma bat, arropa bat eta taldeko argazki bat. Agurra oso hunkigarria izan zen: esker oneko hamaika hitz, besarkadak, etab.

“Ebaluazioa oso positiboa da. Ekintzak eta beraien garapena oso argiak izan dira. Maná zentroko arduradun eta hezitzaile batzuen laguntza nabarmentzen dugu, ia beti ekintzetan parte hartu dute. Gazteek proposatutako ekintzetan gogotsu parte hartu dute”.



- **FABIÁN VACA CHÁVEZ lehen hezkuntzako eskola**

Abuztuaren 7an izan zen boluntarioen azkeneko eguna zentro honetan. Arratsaldea Aberri Egunaren aldeko ekintza zibiko batekin hasi zen eta bukatzeko aldiz, irakasleei Espainiako produktuak dastatzera gonbidatu zieten: patata tortilla, Nafarroako gazta, Terueleko urdaiazpikoa eta Graus-eko txorizoa. Neska mutilei aldiz “chupete” batera.

Fabián Vaca Chávez La Salle sareko zentro publiko bat da, baina muga eta hutsune handiak ditu: egunean lau ordu klase bakarrik dituzte (14.00etatik 18.00tara), lan ohiturak ahulak dituzte ikasleek eta irakasleek ere, ez dituzte libururik (koaderno bat soilik), etab. Lan asko dago egiteko.



- **ESPERANZA arau-hausleen zentroa**

Abuztuaren 8an esan genion agur zentro honi. Hausnarketaren ondoren, jaialdi txiki bat antolatu zuten (3 dantza eta 2 antzerki), bazkari txiki bat partekatu zuten eta “Kit Esperanza” banatu zuten: hortzetako eskuila, hortzetako pasta, boligrafo bat, produktu higienikoz betetako bidaiarako poltsa bat, arropa bat eta taldearen argazki bat.

“Oso eroso sentitu gara eta nekek oso ondo erantzun diete proposatutako ekintzei”. Zentroan bizi diren nekeen artean egoera desberdin asko daude, atentzio-zentro desberdinen beharra dutenak”.



- **CHETEQUIJE gizonezkoen zentro integrala**

Abuztuaren 8an agur esan zien boluntarioek zentro honi. Jaialdi bat antolatu zuten (dantza eta antzerkia), merienda txiki bat preparatu zuten eta “Kit Chetequije” banatu zuten bertakoen artean: hortzetako eskuila, hortzetako pasta, boligrafo bat, arkatz bat, zorrozkaile bat, borragoma bat, arropa bat, motxila txiki bat eta taldeko argazki bat.

“Egiten dugun ebaluazioa positiboa da. Gazteek ongi erantzun diete proposatutako ekintzei. Arazoa taldeko kideen aldaketak izan dira, harrera zentro bat izanik ez zen talde egonkorrik mantentzen”.



4. Karemeno – Keniako proiektua (uztailak 13 – abuztuak 10)

Keniako Karemeno proiektuan Zarauzko Nerea Bereciartua eta Asier Agotek, Zumarragako Jon Aztiriak eta Errenteriako Rocío Jiménezek hartu zuten parte, Madrileko beste boluntario batzuekin batera. Proiektu hau Madrileko Proyde-k bultzatua izan da.

Proiektuarekin konprometitzean, boluntarioek bazekiten eraikin baten eraikuntzan lagunduko zutela, baina ez zekiten asko honen inguruan. Idatzi dute, lehenengo egunetan langileen eta beraien (zuriak, mzungus) arteko erlazioa nahiko bitxia zela, mesfidantza puntu bat bazegoen bertan. Pixkanaka, erlazioa naturalagoa bilakatu zen, elkarren arteko errespetua sortuz. “Egunak aurrera joan ahala, gure benetako zereginaz konturatu ginen. Etxeek forma hartzen zuten bitartean, gure helburua ikusteko gai ginen, non desberdinen arteko erlazioak bere fruitua ematen zuen”.



Karemenoko lehen hezkuntzako eta La Salleko eskolek duten abantailetakoa bat nahiko isolatuta egotea da, Lakipia haranean hain zuzen ere. Horrek hurrekin, gazteekin eta helduekin etengabeko kontaktuan egotea bermatzen du. Lan ordutegitik kanpo, boluntarioek eskolako gazteak laguntzeko aukera izan zuten, horrek dakarren guztia kontutan izanik. Kenian ohizkoa den bezala, ikasleek eskolan egiten dute lo eta hori dela eta ordu asko eskaintzen diete ikasketei. Bertako hezkuntza sistemak ere garrantzia handia ematen die emaitzei eta horregatik, boluntarioen presentziak asko lagundu zien errutina horretatik irteten. Bestalde, etxearen ondoko bidetik haur asko pasatzen zen egunero eta agur eta irribarre bat eskaintzen zieten boluntarioei. “Mzungu, mzungu, come” esanez agurtzen zituzten boluntarioak. Kuriositatea zela eta, boluntarioek jolas batzuk antolatu zituzten lehen hezkuntzako eskola publikoko haurrentzat.

Komunitatean aldiz, Anaiekin egindako otorduetan, elkarriketa asko partekatu zituzten. Hauen bitartez, La Sallek Kenian aurrera eramaten dituen beste proiektu batzuen berri jakiteko aukera izan zuten. Asteburuetan, Anaiekin, proiektu hauetako batzuk ezagutu zituzten: Nakuru-ko Children Discovery Centre, Nyeri-ko St Mary’s School, Nairobi-ko Anaiei komunitatea, etab.

“Zenbatezinak dira aste hauetan eman eta jaso ditugun irribarreak, zorioneko momentuak, inguratzen gaituzten estimuluguztiekhain pozik egotea sentiarazten gaituztelarik. Gure etxetara bueltatzean guztia asimilatzekeo denbora beharrezkoa izango dugula jakin arren, esperientzia guzti hauek gure eguneroko bizitzan ondorioak izango dituela aurreratu

dezakegu. Lan, bizikidetasun eta elkartrukatze handiko egunak izan dira eta orain zailena geratzen zaigu, gure egunerokotasuna berreskuratzen saiatzen garelarik hausnarketa sakona egitea”.

“Hau guztia dela eta, ondorengo esatea besterik ez zaigu geratzen: ASANTE SANA KAREMENO, ASANTE SANA KENIA”.

